

Laura Turull

ERREPRESIOA BIDELAGUN



ZUZENBIDEA, ALDAKETAREN GILTZA

"Akzio txikiekin gauza handiak lortu daitezkeela uste dudalako erabaki nuen zuzenbidea ikastea. Aitaren espetxeratzeak lur jota utzi ninduen arren, etxean bizitakoak motibatatu nau ikasketak bukatzera: Kataluniako politikari presoen kontrako auziari esker asko irakurri eta ikasi dut, eta zuzenbide konstituzionalaren eta penalaren intentsibo bat egin dut. Aitaren eta gainontzeko ordezkarien espetxeratzearekin berretsi egin dut abokatua izan nahi dudala, esku-bideak babestu eta halakorik berriz errepi-katuko ez dela ziurtatzeko".

"Ezinbestekoa zen soka tenkatzea"

Carmen Lamela magistratuaren aginduz, 2017ko azaroaren 2an atxilotu zuten Jordi Turull, Generalitateko Lehendakaritza sailburu ohia eta abokatua. Urte bereko abenduaren 4an aske utzi zuten, eta Generalitateko Lehendakartzarako hautagai izan ondotik, Pablo Llarena magistratuak espetxeratu zuen, berriz, 2018ko uztailaren 4an. Auzia bertatik bertara jarraitu duen alaba zaharrenarekin, Laura Turullekin (Bartzelona, 1997), solastatu gara.

 SAIOA BALEZTEN  JORDI BORRÀS

Espetxeratuta egon ondoren, aita Kataluniako Generalitateko presidentziara hautagai izatetik giltzapetuta egotera pasa zen berriz. Nola bizi izan zenuen?

Zalantzarik gabe unerik gogorrena izan zen hura niretzat. Espetxetik ateratzen ondoren, presidentziarako hautagaia zela eta Llarenak deklaratzera deitu zuela jakin nuenean telefonoz deitu nion eta liskartu ginen. Arratsaldean bilera bat zuten eta mezuak bidaltzen aritu nintzen, behin eta berriz, politika uzteko eskatuz. Bane-kien espetxeratzeko bazuten ez zela libratuko. Aitortzen dut, gaizki egin nuen.

Nola eragin dizue espetxeratzeak familian?

Tira, beste hainbat familiak bezala, gora-beherak bizi izan ditugu, eta hasieran, testuinguruaren garrantzia ulertzen nuen arren, kosta egiten zitzaidan aita ordaintzen zuen prezioa ulertzea. Epaiketa hasi zenean aldiz, buelta eman nion, ez baitut egunero gaizki egon nahi: horrek

lagundu dit nire aitaren borroka ulertzen.

Urrutiei joan al dira Kataluniako preso politikoak?

Tira, bakartiari tranpaka aritzea da hori. Urriaren 1ean mahai gainean kolpe bat eman genuen, erreferendum adostu bat lortu arte mugituko ez garela adierazteko. Ezinbestekoa zen soka tenkatzea. Urrutiei iritsi diren edo ez, ez dut pentsatu nahi.

Errepublikaren aldarrikapenaren biharamunean, ordura arteko estrategia bateratua hautsi zen: Puigdemont eta bertze hainbat politikari erbesteratu ziren eta zure aita eta bertze hainbat Katalunian gelditu ziren.

Mila bider pentsatu dut honetan eta, ondorio desberdinak ateratu ditut beti. Azken finean, erbestea ez litzateke ulertuko espetxerik gabe: denak joan izango balira, ez genuke sekula jakin izanen zein izango zen Espainiako Estatuaren erantzuna. Bateragarriak izan dira biak.



"SENTENTZIA IDATZITA BADAGO, ABOKATUEK ZAIL JARRI DUTE BERE HORRETAN AURKEZTEKO".

Nola aldatu dizu espetxeak zure aitarekin zenuen harremana?

Espetxean sartu baino lehen, zerbait behar nuen guztietan solasten nintzen aitarekin eta orain babes hori falta zait. Aita lapurtu didatenaren sentsazioa dut. Oso zaila da testuinguru honetan harremana mantentzea.

Nola bizi izan duzu epaiketa?

Urte eta erdiz luzatu zen espetxeratze prebentiboaren fasea atzean utzi eta epaiketa hasteko beharra nuen. Fiskaltzak egia bilatu behar du eta ez du hori egin, galderak egiteko orduan agerian gelditu baitzen erronka nagusia euren ikuspegia berrestea zela.

Badago sententzia idatzita dagoela uste duenik...

Tira, hasieran sententzia idatzita zegoela baieztatzen nuen nik ere, baina epaiketa jarraitu ondotik, eta kontuan hartuta sententzia epaiketa-gelan gertatu denaren baitan idazten dela, kosta egiten zait sinestea. Nola justifikatuko dute zazpi epaileek matxinada delitua? Gorroto begiradetan oinarrituta? Kasu,

hori indarkeria bada, edozein manifestaziotan arriskuan egongo gara denak... Sententzia idatzita badago, abokatuek zail jarri dute bere horretan aurkezteko.

Espainiako justiziaren aurrekariak ikusita, kezkatzen al dizu sententziaren gogortasunak?

Noski, Altsasuko gazteen auzia begiratu besterik ez da egin behar. Auzi horrek begiak irekiarazi dizkit: orain arte ez nekien zenbateraino zen kezkarria Espainiako Estatuaren eta komunikabideen manipulazioa. Noski, euren sententzia ikusita, baliteke gurea ere gogorra izatea. Gauzak nola joan diren ikusita, esango nuke preso bakoitzari zortzi eta hamar urteko zigorra aginduko diotela.

Aita espetxeratu aurretik, zein zen errepresioarekin zenuen harremana?

Erabat damutzen naiz, ez nintzelako kontziente errepresioaren larritasunaz. Desengainatuta sentitzen naiz, gaur egun Espainiar Estatuan manipulaturik dagoen jendea ikusita, ni hala zenbateraino egon izan naizen pentsatuta. Tira,

hasieran beldurtu nintzen, gero tristetu, eta orain oldarkor sentitzen naiz.

Kataluniako mobilizazioak ez du aurrekaririk, baina jendea prest al dago sententzia akusatzailea bada, Katalunia gelditzeko?

Baietz espero eta desio dut, baina ez dakit. Orain ezin ditugu bakarrik utzi, espetxean badaude herriak erreferenduma aldarrikatu zuelako da. Ez dut agertoki hori imajinatu ere egin nahi, hiritarren konfiantza osoa dut.

Zuzenbidea ikasita, nola bizi duzu justiziaren eta errealtatearen arteko dikotomia?

Gauza bat da justizia eta bestea boterea. Zuzenbidea ikasten ari nintzen bitartean ulertu dut Espainian, botereak eskubidea duela nire ogibidearen arauak gainetik pasa eta nahi duena erabakitzeke. Espainiako justiziak berak aipua kendu dio bertako justiziari. Desengainatu naiz Kataluniako politikarien kontrako epaiketarekin, baina baita Altsasuko gazteen edo La Manadaren auziekin ere. ●